

MAITASUNA

Doinua: Orioko balearenak

San Valentín:

Pozik daude dutenak
bikote laguna
San Valentín eguna
gezurra duguna
honek sortzen duena
aberastasuna
zentro-komertzialentzat
ederra eguna

Maitasunaren alde txarrak:

Nik zu konkistatzeko
jarri dut ganora
ta hau esan da gero
ez nago gustura
Harremana ez doa
oraingoz inora
Nik zurekin alperrik
galdu dut denbora.

Familiarekiko maitasuna

Nik hau kontatzen dizut
famili maitia
zuen laguntzarekin
bizitza hobia
mundutik bakarra da
nahi dut esatia
pila bat maite dugu
gure familia

Bikote aukerak

Lehengo arauak goaz
gu gaur apurtzera
estereotipoak
goazen aldatzera
nahi dugun generoa
lasai maitatzera
bakoitzak du barruan
beraren aukera

Bikotekideak

Oso gustuko nuen
nire_adiskidea
ta nik eskatu nion
biok irtetea
baietz esan zidan ta
nolako zortea
asko maite dut nire
bikotekidea

Ligatzeko estrategiak

Ligatzeko estrategiak
asko dakizkigu,
zu niretzako zara
zeruko aingeru
batera egotea
da nire helburu
maitakorra izateak
ere balio du.